

## Gurean dira udaberriko Erasmus+ atzerriko ikasleak

2015/02/17

Dagoeneko gure artean ditugu 2014-2015 ikasturteko bigarren lauhilekoan Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean ikasiko duten atzerriko Erasmus+ ikasleak. Udaberriko txanda honetan, guztira, 18 ikasle etorri dira; horietatik 16 Hezkuntza programara (argazkikoak) eta beste biak Komunikazio programara.

Belgika, Hungaria, Polonia, Herbehereak eta Lituaniatik etorritako ikasle horiek guztiak etorri dira ikastera Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eskaintzen dituen bi nazioarteko programetan:

Hezkuntzako Nazioarteko programa (Teacher Education. International programme. Spring) eta Komunikazio programa (Media and Communications. International programme).

Ikasturte honetan, guztira, 27 atzerriko ikasle ikasiko dute Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Izan ere, lehenengo txanda, udazkeneko txandan, 9 ikasle etorri ziren gurera.



Ikasturteko bigarren lauhilekorako etorritako Hezkuntzako Erasmus+ ikasleak.